

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGUA, MERKATARITZA, TURISMOA ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Agindua 129/2024 apirilaren 5a. Arabako eskulangintza sektorean inbertsioak egiteko laguntzen deialdia onestea 2024ko ekitaldirako

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaritzak, bere eskumenen eremuan, enplegua sortzea, prestakuntza, turismo sustapena eta merkataritza eta eskulangintza bultzatzea helburu duten ekintzak eta ekimenak gauzatzeko, hori dena Arabako Lurralde Historikoan jardura ekonomikoa pizteko.

Abenduaren 31ko 51/2013 Foru Dekretuaren bidez, Arabako eskulangintza sektorea arautu zen eta xedatu zen dirulaguntzak eman ahal izango zaizkiela eskulangileei edota eskulangintza enpresei haien egitura nahiz errentagarritasun, kudeaketa edo lehiakortasuneko baldintzak hobetzeko jardueretarako.

Eskulangintza sektorearen berezitasuna dela-eta, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak funtsezkotzat jo du sektoreko elkarte, autonomo eta ETEek egiten dituzten inbertsioetarako laguntza neurriak ezartzea, haien azpiegiturak eta ekipamendua hobetu ditzaten eta, hartara, Arabako eskulangintza sektorea, oro har, lehiakorrago izan dadin.

Horretarako, 51/2013 Foru Dekretuaren 6. artikulua aplikatuz eta sailaren helburuak betetzeko, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailak uste du komenigarria dela Arabako eskulangintza sektoreak inbertsioak egiteko laguntzen deialdia egitea une honetan. Programa hau ez da jardura bakartu bat, baizik eta ekonomia sustatzeko Arabako Lurralde Historikoaren politikaren esparruan kokatua.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Onestea Arabako eskulangintza sektorean inbertsioak egiteko laguntzen 2024ko ekitaldirako deialdi publikoa, zeina Foru Agindu honi atxikitzen baitzaio.

Bigarrena.- Deialdi hori arautzeko, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaritzaren lehia araubideko dirulaguntzak emateko oinarri orokor arautzaileak hartzen dira kontuan (49/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, Foru Gobernu Kontseiluarena), bai eta foru-agindu honen eranskinean ezarritakoa ere.

Hirugarrena.- Foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuko 30502. G/439300/77000302 partidaren kontura ordainduko dira, zeina 18.060,00 euroko zenbatekoaz horniturik baitago.

Laugarrena.- Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin, administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegien aurrean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen, eskumena duen jurisdikzioan.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 5a

Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria
JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLÉS

ERANSKINA

ARABAKO ESKULANGINTZA SEKTOREAN INBERTSIOAK EGITEKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2024KO EKITALDIRAKO

1. artikulua. Xedea

Deialdi honek xede du Arabako eskulangintza sektoreari inbertsioak egiteko dirulaguntzak ematea, norgehiagoka prozeduraren araubidean, lantegiak eta ekipamendua berritzen laguntzeko, hartara, lehiakorrago izan daitezen eta egiturak eta kudeaketa hobetu ditzaten.

2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehieneko zenbateko osoa

— Foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuko 30502. G/439300/77000302 partidaren kontura ordainduko dira, zeina 18.060,00 euroko zenbatekoaz horniturik baitago.

2.2. Deialdi honetarako zehaztutako aurrekontu partidaren hasierako hornidura hasierako aurrekontuaren ehuneko 100 handitu ahal izango da, gehienez, aurrekontu transferentzia ego-kien bitartez, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

3. artikulua. Onuradunak

3.1. Eskulangile, eskulangintzako enpresa eta elkarte eta sektorea ordezkatzan duten gainerrako erakunde guztiak, baldin eta frogatzen badute Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta daudela edo bertan dutela zerga egoitza eta, beranduenik 2024ko urtarrilaren 1az geroztik Arabako Eskulangintza Erregistro Orokorrean izena emanda badaude, edo bestela, egun horretan hasita badute bertan alta eskatzeko prozesua, eta eskaera horri ezezkorik eman ez bazaio laguntza lerro honetara eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean.

3.2. Onartzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexuagatik bereizkeria eragiten duten pertsonak edo erakundeak ezin dira izan onuradunak, hala xedatzen baitu EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 23.2 artikuluan.

Halaber, ezingo dute parte hartu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, sexua dela eta bereizkeria egiteagatik administrazio zehapena edo zehapen penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek, ez eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bategina onesten duen EAEko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua dela bide debeku horrekin zehatutakoek ere.

3.3. Onuradun guztiek Araban izan beharko dute zerga egoitza eta zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean eduki beharko dituzte, bai dirulaguntza emateko ebazpena hartzeko garaian, bai dirulaguntza ordaintzeko garaian.

Enpresen kasuan, Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizazio kontuaren koderik esleituta ez badute, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

3.4. Berariaz geratzen dira kanpoan Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako aurrekontuan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaritzaren dirulaguntza izendun bat dutenak, esleitzeko unean hitzarmena sinatuta egon zein ez, nahiz ezarritako epearen barruan laguntza lerro honetako aurreko deialdietan emandako beste dirulaguntza batzuk egin edo frogatu ez dutenak, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zerbitzuaren ustez hori ez betetzeko arrazoiak behar beste arrazoitu ezean.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

4.1. Honako gastu hauek diruz lagungarritzat joko dira baldin ezarritako epean egiten badira:

a) Honako hauek erostea, muntatzea eta instalatzea: jarduera egiteko beharrezkoak eta espezifikokoak diren ekoizpen tresnak eta makinak eta eskulangintzako jarduerarekin lotuta dauden informatika ekipoak eta softwarea (sartuta daude, hala badagokio, garraio kostuak eta azoketan erabiltzeko olanak eta antzekoak erostea).

b) Eskulangintza jarduera modu independentean eta bereizita egiteko izango diren lantegiak eta lokalak ezarri, modernizatu, birgaitu, zaharberritu edo egokitzeko behar diren obra txikien gastua, energia aurrezteko helburuarekin lokalak egokitzearena barne. Obra txikia izango da teknikoki errazak eta eraikitzeko munta txikikoak direlako eta diru gutxi behar dutelako hartakotzat jo daitezkeenak, eraikin barruko banaketa aldatzen dutenak barne. Ez dira obra txiki izango erabilera aldaketa dakartenak.

Horiek horrela, diruz lagundu ahal izango dira obra mota hauek, besteak beste:

- Azpiegiturakoa ez den zati bat eraberritzeko obrak, trenkada aldatzea edo kentzea barne.
- Zoru, sabai, horma, igeltsua, xaflatua konpontzeko, zaharberritzeko, aldatzeko edo ordezkatzeko lanak.
- Hoditeria, elektrizitatea, berotze sistema, saneamendua eta beste batzuk instalatzea eta gainerako estalkiak.
- Oztopo arkitektonikoak kentzea helburu duten obrak.

Ez dira inolaz ere diruz lagunduko norberaren etxebizitza hobetzeko diren eta eskulangintza jarduera gauzatzeko baldintzak hobetzeko ez diren obrak. Obrek bi eremu horiei eragiten dietenean, diruz lagungarri izango da lantegirako soilik izango den eraikuntzen eta inbertsioen zati proportzionala, baldin lotura zuzena eta agerikoa badute eskulangintza ogibidea gauzatzearekin.

Ez dira diruz lagungarri izango, orobat, proiektu teknikoaren idazketa eta obra zuzendaritza.

Betiere jarduketa behar adina justifikatuko da eta beharrezkoa izango da. Era berean, bat etorri beharko du, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz, eskatzailearen eskulangintza jarduera gauzatzearekin.

Gastuek ez dute dirulaguntzarik jasoko, besteak beste, kasu hauetakoren bati badagokie:

- Kanpo garraioaren elementuak.
- Bulegoko altzariak.
- Bigarren eskuko ekipoak edo makinak eskuratzea.
- Produktua egiteko erabiltzen diren ondasun suntsikorak, lehengaiak edo gastuak.

- Edozein eratako zergak, lizentziak eta tributuak.
- Lokala edo lantegia erosteko inbertsioak.
- Finantza gastuak.
- Obra handiak, hala nola, oin berriko obrak edo dauden eraikinen azalera, bolumena edo garaiera areagotzen dutenak edo haiek osorik, eta ez zati batean, birgaitzen dutenak.
- Aldizkako gastuak eta/edo errepikatzen direnak nahiz kuota mota oro.
- Lokala egokitzeko materialen gastuak.
- BEZa eta gainerako zeharkako zergak, salbu onuradunak konpentsatu edo berreskuratu ezin baditzake.
- Pertsona edo entitate eskatzaileari lotutako enpresa edo pertsonen bitartez egindako gastuak.
- Dirulaguntza jaso behar duen jarduerari zalantzarik gabe lotu ezin zaizkion gastuak edota deialdian xedatutako epean egiten ez direnak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zerbitzuak uste badu gastuen aurrekontua gehiegizkoa dela antzeko gastuen batez besteko kostuaren aldean, diruz lagundu daitekeen oinarria murriztu ahal izango du, gastuentzako zenbateko egoki eta proportzionalera arte.

4.2. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea baimentzen da, betiere Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 27. artikuluan ezarritako baldintzak betez.

4.3. Proiektu beraren barruan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zerbitzuaren iritziz eskulangintza sektoreko lantegiak eta ekipamendua berritzen nahikorik laguntzen ez duten jardunak badaude, baztertu egin daitezke adjudikatu beharreko dirulaguntzaren kalkularen ondorioetarako.

5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epealdia

5.1. Deialdi honetako onuradun gertatzen direnek laguntza jasotzen duten jardueren emaitzak Arabako Lurralde Historikoan ezarri beharko dituzte.

Diruz lagungarriak izango dira:

- 2024. urtean hasitako inbertsio proiektuetatik, 2024ko azaroaren 29ra arte gauzatzen direnak (egun hori barne).
- 2023ko azken bi hilabeteetan hasitako inbertsio proiektuetatik, 2024ko azaroaren 29ra arte gauzatzen direnak, egun hori barne, baldin eta ez badira diruz lagundu eskulangintza sektorerako aurreko deialdietan.

Horren ondorioetarako, fakturazio eguna izango da proiektuaren gauzatze eguna eta gastua egin den eguna.

6. artikulua. Laguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Inbertsioari dagokionez, 4.1.a) artikulurako gutxieneko inbertsioa 100,00 euro (zerga oinarria) izango da, eta b) apartaturako, berriz, 500,00 euro (zerga oinarria).

6.2. Gehieneko zenbateko eta ehuneko hauen arabera ezarriko da dirulaguntza:

- 4.1.a) apartatuan ezarritako inbertsioetarako, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 80ko dirulaguntza emango da; gehienez ere 3.500,00 euro, onuradun bakoitzeko.
- 4.1.b) apartatuan ezarritako inbertsioetarako, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 40ko dirulaguntza emango da; gehienez ere 5.000,00 euro, onuradun bakoitzeko.

6.3. Hala ere, deialdia ebatzi ondoren 2.1 artikuluko aurrekontu kreditua agortu ez bada, sortutako gerakina onuradun bakoitzaren dirulaguntza ehuneko 90era arte handitzeko erabili ahal izango da, hainbanaketa bidez, 4.1.a) apartatuan ezarritako inbertsioetan.

6.4. Eskatzailea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaritzaren beste laguntza programa batzuetan onuradun atera bada, programa honen kostura onartutako antzeko izaerako proiektuetan, dirulaguntzaren oinarria doitu da araudi honetan ezarritako gehieneko mugak ez gainditzeko.

7. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak

7.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zerbitzuak bideratuko du.

7.2. Balorazio batzordea honela eratuta egongo da:

– Lehendakaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.

– Batzordekidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

8. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

– Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozein. Edonola ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek egoitza elektronikoen berriazko izapidearen bidez <https://egoitza.araba.eus/eu/-/realizacion-inversiones-sector-artesanos>, telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzeko dutenak.

AFaren egoitza elektronikoen zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoan identifikatzea, ziurtagiri elektronikoen baten edo BAKO sistemaren bidez, hemen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoen: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

8.2. Eskaerak aurkezteko epea laguntza hauek argitaratu ondorengo egunean hasi eta 2024ko ekainaren 7ko 14:00etan amaituko da, egun hori barne.

8.3. Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikoen zehaztutako eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

1. IFZ, eskulangintza enpresen eta elkarleen eta sektorea ordezkatzeko duten gainerako erakunde kasuan, edo NANA, gainerako kasuetan.

2. Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egotearen ziurtagiria.

3. Dirulaguntzaren eskaeraren xede diren jarduketaren deskribapen memoria.

4. Laguntzen xede diren inbertsio/jarduketei dagozkien eskaintzen edota aurrekontuen edota fakturen fotokopia. Aurkeztutako inbertsio/jarduera batek kontratu txikien muga gainditzen badu (40.000,00 euro obretarako eta 15.000,00 euro gainerakoetarako), ondasuna sartu baino lehen eskatutako 3 eskaintzen fotokopiak erantsi beharko dira, eta zer eskaintza hautatu den eta zergatik azaldu beharko da.

8.4. Pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaritzak laguntza eskaeraren eredian identifikatutako harremantarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako jakinarazpen guztiak.

8.5. Aplikatzekoa den araudiaren arabera, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaritzak ofizios egiaztatuko ditu honako datu hauek administrazio eskudunean:

- Zerga betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa,
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izateari buruzko informazioa,
- Eskatzailearen zerga egoitzari buruzko informazioa,
- Ogasunean Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu den ala ez jakiteko informazioa (profesionalek jaulkitako fakturen kasuan soilik).

Eskatzaileak ofiziosko egiaztapen horren aurka egin ahal izango du. Hala eginez gero, eskatzaileak betebeharrak bete dituela egiaztatzen duten agiri guztiak aurkeztu beharko ditu laguntza eskatzean.

9. artikulua. Dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak

9.1. Foru agindu honetan aurreikusitako laguntzak norgehiagoka araubidean izapidetuko dira, eta honako lehentasun ordena hau ezarriko da, 4.1. artikuluan ezarritako jarduketa lerroen arabera:

1. Lehenbizi, 4.1.a) apartatuan ezarritako inbertsioei dagozkien gastuak ordainduko dira, eta inbertsio horiek lehentasunaren arabera ordenatuko dira, hurrengo idatz zatian ezarritako irizpideak oinarritzat hartuta.

2. Halaber, 4.1.a) apartatuan jasotako inbertsioak finantzatzeko behar guztiak bete ondoren, eta orduan baino ez, baldin aurrekontu krediturik sobera badago, 4.1.b) apartatuan ezarritako inbertsioei dagozkien gastuak ordainduko dira. Inbertsio horiek ere lehentasunaren arabera ordenatuko dira, hurrengo idatz zatian ezarritako irizpideak oinarritzat hartuta.

3. Behin 1. eta 2. urratsak aplikatuta, eta 6.3 artikuluan ezartzen den bezala, deialdia ebatzi ondoren 2.1 artikuluko aurrekontu kreditua agortu ez bada, sortutako gerakina onuradun bakoitzaren dirulaguntza ehuneko 90era arte handitzeko erabili ahal izango da, hainbanatuta, 4.1.a) apartatuan ezarritako inbertsioetan.

9.2. Irizpide objektibo hauek erabiliko dira, azkenean onartzen diren eskaeretatik dirulaguntza zeintzuei emango zaien erabakitzeke:

1) Enpresaren lehiakortasuna hobetzea.

Irizpide hau ebaluatzerakoan kontuan hartuko dira honako emaitza hauek ahalbidetzen dituzten jarduketak: produktuaren berrikuntza, produktua desberdintzea, kalitatea areagotzea eta enpresaren kudeaketan eta IKTen erabileran hobekuntzak egitea.

2) Justifikatutako ehunekoa (zenbateko onartua), eskatzailea onuradun gertatu zen laguntza lerro honen azken deialdian adjudikatu zen zenbatekoari dagokionez.

Irizpide hori honela ebaluatuko da:

- Ehuneko 90 edo gehiagoko justifikazioa, 30 puntu.
- Justifikazioa ehuneko 60koa edo handiagoa eta ehuneko 90etik beherakoa edo hirugarrena laguntza lerro horren onuradun den lehen aldia izatea: 15 puntu.
- Ehuneko 60tik beherako justifikazioa, 0 puntu.

3) Laguntza eskaeraren xede diren ekintzen azalpen memoria eta eskaera bera argiak, zehatzak eta behar bestekoak izatea, eta, halaber, hura aztertze behar den dokumentazio guztia sartzea bertan, hasiera-hasieratik.

Irizpide hori honela ebaluatuko da:

- Eskaera aurkezteko unean osorik aurkeztutako eskaerak: 20 puntu.
- Lehen dokumentazio errekerimendu baten ondoren eta osorik aurkeztutako eskaerak: 10 puntu.
- Aurkeztutako gainerako eskaerak: 0 puntu.

4) Proiektuaren eraginaren gradua.

Irizpide hau baloratzeko, kontuan hartuko dira proiektuari lotutako lanaldi osoko lanpostuak sortu diren eta fakturazioaren gehikuntza.

Irizpide horiek honela haztatuko dira:

- 1. irizpidea: 30 puntu, gehienez.
- 2. irizpidea: 30 puntu, gehienez.
- 3. irizpidea: 20 puntu, gehienez.
- 4. irizpidea: 20 puntu, gehienez.

9.3. Onuradunak hautatzeko eta bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren zazpigarren oinarrian ezarritakoari jarraituko zaio.

9.4. Baldin eta eskaerako inbertsio batzuek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren ustez ez badute behar beste laguntzen dirulaguntzaren xedea lortzen, partida horiek kanpoan utzi ahal izango dira esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko orduan. Era berean, erakunde onuradunak 6.2 apartatuan ezartzen den diruz laguntzeko moduko gehienezko aurrekontua agortzen badu, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zerbitzuaren ahala izango da diruz lagunduko diren gastu kontzeptuak zehaztea.

10. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epealdia

10.1. Organo eskudunak, balorazio batzordearen proposamenez, bidezko deritzon ebazpena emango du. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, prozeduraren ebazpena eman eta jakinarazteko sei hilabete izango dira, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Epe hori igarotakoan esanbidezko ebazpena eman eta jakinarazi ez baldin bada, administrazioaren isiltasuna ezestekoa izan dela ulertuko da, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 23.5. artikuluari jarraituz.

10.2. Ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez jakinaraziko dira, eta ezi-nezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

10.3. Jakinarazitako ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du, baina, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foru Gobernu Kontseiluari, egintza argitaratu ondorengo egunean hasi eta hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegien aurrean, egintza argitaratu ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

11. artikulua. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea

11.1. Dirulaguntzen likidazioa administrazio ebazpenean agindu bezala gauzatuko da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintzak bete ondoren.

11.2. Dirulaguntzak bitarteko elektronikoen bidez justifikatu behar dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bitartez erabil daitekeen erregistro elektronikoa.

Dirulaguntzaren justifikazio gisa elektronikoki aurkeztutako dokumentuek bat etorri beharko dute interesdunaren esku egongo den jatorrizkoarekin, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zerbitzuaren eskura jarri beharko ditu hala eskatzen zaionean.

Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.7 artikuluan ezarritakoarekin, erakunde onuradunak du dokumentazioa egiazkoa izatearen ardura.

11.3. Arabako Foru Aldundiak onartu ahal izateko dirulaguntzaren zenbateko justifikatua ordaintzeko betebeharra, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2024ko azaroaren 29a baino lehen (egun hori barne):

- Egindako inbertsioen memoria.
- Fakturak eta gainerako frogagiri baliokideak.
- Hauei buruzko informazioa jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena:

a) Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta aurkeztutako kopia jatorrizko dokumentuekin bat datozela.

b) Dirulaguntza honetaz gainera, hemen diruz lagundutako kontzeptuetarako beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuk lortu diren. Baiezkoa bada, diru sarrera horien justifikazioa aurkeztuko da, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Faktura elektronikoki aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarren arabera izan beharko da haien formatua. Elektronikoki izenpetutako beste edozein agiri aurkeztu behar izanez gero, onartuko dira konfiantzazko zerbitzu elektronikoki kualifikatuen emaileen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak (<http://sede.minetur.gob.es/Prestadores>).

Baldin eta gastuak kontratu txikien zenbatekora (40.000,00 euro obretan edo 15.000,00 euro gainerako kontratuetan) heltzen badira edo kopuru horiez gainerakoak badira eta hautatutako eskaintza ez bada ekonomiaren aldetik onuragarriena, hautapenaren justifikazioarekin batera hiru eskaintza eta justifikazio txostena aurkeztu beharko dira, baldin eta eskaera egiteko unean aurkeztu ez bada eta ondoren benetako gastuak kontratu txikientzat ezarritako muga berdindu edo gaitu badu.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zerbitzuak beste dokumentu batzuk ere eskatu ahal izango ditu, egoki baderitza memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

Profesionalek jaulkitako fakturen kasuan, erakunde onuradunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketaren betebeharra onartuko da, eta Arabako Foru Aldundiaren arduraren izango da ordainketa horiek egiaztatu eta dagokion justifikazio txostena ematea. Dirulaguntza ordaindu bada eta, egiaztapena egin ondoren ikusten bada dagozkion atxikipenak ez direla ordaindu, ordaindutako zenbatekoa itzultzeko eskatuko da, dagozkion interesekin.

11.4. Onuradunak fakturak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zerbitzuan 2025eko apirilaren 4ra arteko epean, egun hori barne, ordaindu izana justifikatu ondoren ordainduko du Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren justifikatutako zenbatekoa. Formatu hauetako edozeinetan aurkeztu ahal izango da fakturak ordaindu izanaren justifikazioa:

– Banka elektronikoen bidez egindako banku laburpenak edota transferentzia aginduak, zehaztuta dutenak ordainketaren ordaintzailea eta onuraduna, zenbatekoa eta data.

– Tiketak (faktura erraztuak), baldin eta Fakturazio Araubidearen 7. artikulua 2. eta 3. apartuetan xedatutakoaren arabera egin badira (maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretua), hau da: ordaindu beharreko kopurua ordaindu dela frogatzen duten faktura erraztu kualifikatuak, har-tzailearen IFZ eta helbidea adierazten dutenak, bai eta esleitutako zerga kuota berezita ere, eta diruz lagundutako jarduna zehazten dutenak eta tiketa jaulkita dagokion zenbatekoa ordaindu dela adierazten dutenak.

– Eskurako ordainketen kasuan, frogagiritzat hartuko da fakturaren erakunde jaulkitzailearen ziurtagiri sinatua edota zigilatua, zeinetan faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data agertu beharko baitira, betiere zenbateko hori eskudiruzko ordainketei buruz indarrean dagoen 2024ko araudian ezartzen den zenbatekoa edo handiagoa ez bada.

11.5. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2024rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa, edo haren kontrabalioa atzerriko dirutan.

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa gutzien zenbatekoak batuko dira.

11.6. Ordainketak arinago egin daitezten, agiriak kasu bakoitzerako ezarritako epemuga baino lehen aurkeztu ahal izango dira.

11.7. Justifikatutako gastuak, guztira, diruz lagundu daitekeen aurrekontua adinakoak izan beharko dira, gutxienez. Diruz lagundu daitekeen aurrekontu horretara iritsi ezean, dirulaguntza proportzioan murriztuko da, eta dagokion kopurua baliogabetuko da.

11.8. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuari hasieran onartu zaion muga oinarri hartuta, aldaketak onartu ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen kontzeptu eta zenbatekoetan, nahiz eta diruz lagundu daitezkeen kontzeptuetakoren bat gauzatu gabe gelditu. Desbideratze horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zerbitzuaren oniritzia beharko dute, salbu eta funtsezko aldaketak egiten badira, halakoei Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaritzak eman beharko baitie oniritzia.

11.9. Baldin eta 6.2. artikuluan ezarritako dirulaguntza muga aplikatu bada, onargarria izango da diruz laguntzekoa den gastuan murrizketak egitea, esleitutako dirulaguntza aldatu gabe, betiere dirulaguntzaren xedea betetzen bada.

11.10. Epe horiek igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztu beharreko guttia aurkeztu ez bada, dirulaguntza gutxitu edo baliogabe utziko da, kasu bakoitzari dagokionaren arabera.

12. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

12.1. Oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuak hamahirugarren oinarrian ezartzen duena aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira foru agindu honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara, bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gairiditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

Era berean, laguntza hauek bateragarriak izango dira osasun krisia kudeatzeko hartutako neurrien ondorioz jarduera gutxitzeak ekarri dion galera ekonomikoa arintzeko onuradunak jaso ditzakeen itzuli beharrik gabeko zuzeneko dirulaguntzekin.

12.2. Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren eman beharko zaio horren berri, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaritzari, zeinak eskatutako laguntza murriztea edo ukatzea proposa baitezake.

12.3. Laguntzen deialdi honek bete egingo ditu Europako Batzordearen unean uneko errege-lamendu indardunetan ezarritako "minimis" arauak. Horretarako, Europar Batasunaren Funtzio-namenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduak 3.2 artikuluan adierazten du estatu kide batek enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen guztizko zenbatekoa ezin dela izan 200.000,00 euro baino handiagoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan.

13. artikulua. Eskaerak egokitzea

Foru agindu honetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartzerik ez duten hirugarren pertsonen jarduketak –dela foru agindu honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dutelako, dela diruz laguntzea nahi den kontzeptuak diruz lagundu ezin direlako edo Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zerbitzuaren iritziz proiektu horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaritzak aurten kudeatutako beste laguntza lerro batzuei hobeto egokitzen zaizkielako eta horrelakoren bat eskuratu ahal dutelako– dagokien laguntza lerrora eraman ahal izango dira ofizioz.

14. artikulua. Azken klausula

Foru agindu honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaile orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mende ere: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinak Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren araudia onesten baitu, eta dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak.